**Batxilergoko Sari Berezia 2015/2016Premio Extraordinario de Bachillerato**

**EZ SINATU ETA EZ JARRI IZENA / NO FIRMES NI PONGAS TU NOMBRE**

| IDENTIFIKAZIO-KODEA / CÓDIGO IDENTIFICATIVO | KALIFIKAZIOA / CALIFICACIÓN |
|---|---|
| | |

# IKUS-ENTZUNEZKO KULTURA

# CULTURA AUDIOVISUAL

| Balioespena: irizpide orokorrak | Criterios generales de valoración |
|---|---|
| Honako hauek hartuko dira aintzat: erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, testuaren egituraketa, lexikoaren aberastasuna eta zuzentasun linguistikoa. | Se valorará la corrección de las respuestas, la claridad y calidad de la exposición, la estructuración, la propiedad del vocabulario y la corrección lingüística. |

| Balioespena: irizpide espezifikoak | Criterios específicos de valoración |
|---|---|
| **Irudiaren analisia**<br>Analizatzeko gaitasuna izatea:<br>– Irudikapenaren forma- eta konposizio-alderdiei erreparatzea.<br>– Konfigurazioan erabilitako baliabide teknikoak identifikatzea.<br>Irudiaren ulermen semantikoa. | **Comentario de imagen**<br>Capacidad de análisis:<br>– Observación de aspectos formales y compositivos.<br>– Identificación de recursos técnicos en su configuración.<br>Comprensión semántica de la imagen. |
| **Narrazio grafikoa**<br>Proposamena betetzea.<br>Espazioa irudikatzeko baliabideen aberastasuna.<br>Denbora-egitura. | **Narración gráfica**<br>Cumplimiento de la propuesta.<br>Riqueza de recursos en la representación del espacio.<br>Estructura temporal. |

| **Irudi-iruzkina (6 puntu)** | **Comentario de imagen (6 puntos)** |
|---|---|
| Irudian, argazki-sekuentzia bat ageri da: ikusizko narrazio bat da, **DUANE MICHALS**en ***Giza izatea*** **(1969).**<br><br>a) Analiza ezazu sekuentzia pausoz pauso: nola gertatzen da eraldaketa?, zer aldatzen da?, zerk irauten du?, nolako baliabide teknikoak darabiltza egileak?<br><br>b) Duane Michalsek honela definitu du bere burua:*"istorio laburren kontalaria"*; eta lan egiteko duen modua honela azaldu du: *"Ni ez naiz kalera irteten bizitzari argazkiak egitera. Ni ez naiz erreportaria. Ezta behatzailea ere. Nire kontzientziaren prozesuak dira nire argazkietarako materiala".*<br><br>Esandako horietan oinarriturik, egizu ***Giza izatea*** lanaren iruzkina, galdera hauei erantzunez:<br>Zer istorio kontatzen dute argazki hauek?<br>Zer harreman ageri da hemen argazkiaren eta errealitatearen artean?<br>Zer funtzio betetzen du argazkigintzak? | La imagen reproduce una secuencia fotográfica; se trata de una narración visual de **DUANE MICHALS**, titulada ***La condición humana*** **(1969).**<br><br>a) Analiza la secuencia paso a paso: ¿cómo se produce la transformación?, ¿qué cambia?, ¿qué permanece?, ¿qué recursos técnicos utiliza el autor?<br><br>b) Duane Michals se ha definido a sí mismo como *"un narrador de historias cortas",* y ha descrito su forma de trabajar del siguiente modo: *"Yo no salgo a la calle a fotografiar la vida. No soy reportero. Ni tampoco un espectador. Los procesos de mi conciencia son el material para mis fotografías*".<br><br>Basándote en estas afirmaciones comenta ***La condición humana*** contestando a las siguientes preguntas:<br>¿Qué historia narran estas fotografías?<br>¿Qué relación existe aquí entre fotografía y realidad?<br>¿Qué función cumple el medio fotográfico? |




**DUANE MICHALS** - *Giza izatea / La condición humana*, 1969

| Narrazio grafikoa (4 puntu) | Narración gráfica (4 puntos.) |
|---|---|
| Eraiki –marraztuz– narrazio grafiko bat, argumentu labur bat garatzen duena eta gai nagusitzat **eraldaketa** ideia duena.<br>DIN A4 formatua gainditu gabe, marraztu bost bineta gutxienez. Eskura duzun edozein baliabide grafiko erabili dezakezu.<br>Garrantzizkoa da kontakizunaren esangurarekin bat etortzea, bai denborazko sekuentziaren egitura, bai aukeratzen dituzun soluzio formalak. | Elabora –dibujando– una narración gráfica que desarrolle un pequeño argumento cuyo núcleo temático gire en torno a la idea de **transformación.**<br>Sin sobrepasar el formato DIN A4, dibuja un mínimo de cinco viñetas. Puedes utilizar cualquier recurso gráfico del que dispongas.<br>Es importante que la secuencia temporal que estructures y las soluciones formales que adoptes se correspondan con el sentido de lo narrado. |